



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64

20269 GIPUZKOA

HIRI HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUAREN UDAL ORDENANTZA

ARRAZOIEN AZALPENA

Ordenantza honen bidez, Orendain Zero Zabor herria bilakatu nahi da. Baita hiri hondakinen ondorioz zabortegetan dagoen arazoari aurre egin ere. Zero zabor, helburu izango da Orendainen hemendik aurrera.

Gure gizartean dagoen kontsumismoaren eraginez, biztanleok sortu eta zabortegetara botatzen dugun hondakin kopurua oso altua da. Ondorioz, lurzorua kutsatzen ari gara. Hondakinen prebentzioa ezinbesteko da horri aurre egiteko. Hondakinak hasteko berrerabili hala posible denean. Bestela sailkatu eta bakoitza dagokion edukiontzian utzi.

Ez da biztanleria ordea, sortzen dugun hondakin kopuru altua izatearen arduradun nagusia. Beste hainbat gauza ere aldatu beharra dago: bilgarrien lege egokiak sortzea, produktuen diseinua, birziklatzeko plantetan hobekuntzak.

Udala ez dago halako erabakiak hartzen diren guneetan ordea. Ez dira gure eskumena eta horretan gutxi egin dezakegu. Guk zabortegeien arazoari modu arduratsu batean erantzuteko egin dezakegun gauza bakarra, herritik ateratzen diren hondakin guztiak sailkatuta ateratzea da.

Gure etxeek gainera, kasurik gehienetan, gure organikoa bertan kudeatzeko aukera eskaintzen digute. Zabor organikoa zabortegetara botatzeari uztea, lehen mailako beharra da. Zabortegetako kutsaduren arazo nagusia kentzen dugu zabortegeira bota beharreko poltsatik organikoa kenduta .



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Azkenik esan, zaborren tasak jaistera ere helburu duela ordenantza honek. Ordenantza honek hiri hondakinen bilketa, trataera eta garraio zerbitzua arautzen ditu, erabiltzaile eta zerbitzuen prestatzaile den heinean.

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Helburua

Ordenantza honek, Udalaren eskuduntzen barruan, ondorengo jarduerak arautzea du helburu:

- Hiri hondakin solidoen bilketa eta tratamendua

Halaber, Udalaren (bilketa zerbitzuaren kudeatzailea) eta zerbitzu honen erabiltzaileen arteko harremanak arautzen ditu, bi aldeek eskubideak eta betebeharrak erabakiz.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Ordenantza honen lurralde eremua Orendaingo Udal barrutia da.

3. artikulua.

Hiri hondakin solidoen kudeaketa Orendaingo Udalari dagokio, Tolosaldeko mankomunitatearekin batera.

4. artikulua. Erabiltzaileak

Zerbitzu hauetako prestazioetan erabiltzaile kategoria dute zerbitzu hauen onuradun edo kaltetu diren pertsona fisiko nahiz juridikoak.

5. artikulua. Araudi aplikagarria

Ordenantza honek Hondakinen apirilaren 21eko 98/10 Legeari eta gainontzeko xedapen aplikagarriei jarraitzen die.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

6. artikulua. Hondakinen kudeaketa, tratamendu, ezabaketa eta aprobetxamenduaren definizioa.

Ordenantza honen xederako hauek dira definizioak:

- a) Hondakinak: norbaitek utzitako eta utzi nahi dituen objektu edo sustantziak dira.
 - b) Hiriko edo herriko hondakinak: etxe partikularretan, eta beste zerbitzuetan sortutako hondakinak, eta arrisku kalifikazioa ez duten eta izaeraz edo osaketaz aipatu leku nahiz jardueretan sortzen direnen antzeko hondakinak.
- Hiri hondakin moduan hartuko dira beste hauek ere:
Bide publikoen, berdeguneen, jolaserako lekuen garbiketarik datozen hondakinak.
Hildako etxeko animaliak, altzariak eta tresnak.
Etxe konponketatik edo eraikuntzako obra txikietatik datozen zabor eta hondakinak.

II. TITULUA

BILKETA ZERBITZUA

I. KAPITULUA. HONDAKINEN TRATAMENTUA ETA BILKETA

Ordenantza honek hiru irizpide hauek jarraitzea eskatzen du:

A) Orendainen sortuko den hondakin organiko guztia herrian kudeatuko da: hezurak, arraina, sukaldatutako jaki, barazki gordin, arrautza azal... Bakoitzak bere etxean kudeatuko du, horretarako aukerarik badu. Horretarako udalak jarritako Konpostagailua erabil dezake, animaliei bazka eman... Konpostagailua jarri ezin duten bizilagunek, auzo konpostagailua erabiliko dute frakzio organiko guztia kudeatzeko. Herriko Eltxo Elkarteak eta Herriko Ostatuak, txerriei jaten emanez kudeatuko dute sortzen zaien organikoa. Txerri hauek, emergentzia gune



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

gisan ere erabili ahal izango ditu herriko edozein familiak, etxean edozein arrazoiengatik organiko asko sortu bazaio.

B) Gainontzeko beste hondakin frakzio guztiak, sailkatuta atera beharko dira. Beira, arropa eta olioak, eliza atzean dauden edukiontzietan utzi behar ditugu. Ontzi arinak (plastikozko pote eta botilak, latak, fruitu sare, aluminio paper...) paper eta kartoia, pilak, garbigunera eraman behar diren hainbat produktu (Likido toxikoak dituzten ontziak, motorretako olioak, etxetresna txikiak, bonbilak...) fardelak eta errefusa. Azken hau, identifikatutako gantxo batean utzi behar da. Besteak, dagokien edukiontzian.

D) Kale garbiketatik sortzen diren hondakinak ere sailkatuta bota behar ditu udal langileak dagokien edukiontzietan. Kaleko zaborrontzietara hondakinak sailkatuta bota behar ditu erabiltzaileak.

8. artikulua . Prestazioa

Zerbitzuaren prestakuntza honako eragiketa hauetan oinarritzen da :

- Udalak ezarri berri dituen birziklaguneetatik, Orendaingo hirigunera hondakin saikatua ekartzea, eta berriro auzoguneetara ontziak eramatea.
- Tolosaldeko Mankomuniarearen zerbitzuarekin, hirigunetik bilketa egitea eta dagokion lekura eramatea.
- Jabetza publikoa duten edukiontzia izanik, Udalak berriro egingo ditu hondatu ahala edo gaizki erabiltzeagatik zerbitzurako erabilgarri gertatzen ez direnean.

9. artikulua. Zabor edukiontzia.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Bilketa Udalaren edukiontzi bidez egiten denean, erabiltzaileak behartuta daude higie-ne eta segurtasun baldintzetan zaindu eta mantentzera, beren erruagatik, arduragabekeriagatik edo zuhurtzia faltagatik edukiontziek jasan dezaketen hondatzearen ardura bere eginez.

II. ATALA: Erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak, betebeharrak eta erantzukizunak. Etxebizitza, eta bestelako denboraldirako bizileku edo txabolen jabe edo erabiltzaileek hondakinen bilketa zerbitzua erabiltzeko eskubidea dute 7. artikuluan xedatzen den bezala eta derrigorrez aipatu zerbitzuaren kostua abonatu behar dute.

Horretarako udalak, urtero zerbitzuaren kostua baloratu eta erabiltzaile guztien artean banatuko du, zabor bilketaren tasan isladatuaz.

Tasa ordaintzeko tramoak dira:

- Zerbitzu ez domestikoa:

Tabernak
Elkartek

-Zerbitzu domestikoa

Zerbitzu domestiko honen barruan, Orendaingo etxe, baserri, etxe huts eta noizbehinkako etxe erabilera ematen dioten beste eraikinak dira.

Erabiltzaileen betebeharrak: Erabiltzaileak, arau honetan xedatzen den erara bere etxeko hondakinak tratatu eta sailkatzeko betebeharra du.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

II. ATALA: Altzari, etxeko tresneria eta traste zaharren bilketa

11. artikulua

Altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak biltzeko antolaketa Tolosaldeko mankomunitaeak burutzen du.

12. artikulua

Zerbitzu honek edozein motatako altzariak, etxeko tresneria eta traste zaharrak bilduko ditu, baldin eta haiek maneiatzeko baliabide mekanikorik erabili behar ez badu, hau da, garabi, polea, etab., behar ez baditu. Era berean, hondakin horiek garraiatzeko prestatuta utzi behar dira, jaso ahal izateko. Bilketa mota hau, gutxienez, hilean behin emango da.

III. TITULUA

ARAU HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

13. artikulua.

Ordenantzak dioenaren kontra dauden egintzak eta omisioak arau hauste administratiboak dira. Era berean, agindutako neurri zuzentzaileak ez ezartzea edo segitu beharreko jokabideari uko egitea urraketa administratibotzat joko dira.

Erantzukizun zibil eta penalez aparte, ondorengo lerroetan tipifikatuta dauden arau hausteen zigorra alkateak jarriko du, baldin eta 300 eurotik tik gorakoak ez badira.

Zigorraren zenbatekoak 300 euro gainditzen baditu, eskuduntza duten agintariiek jarriko dute zigorra, baldin eta sektoreko legeren batek Udalari beste kopuru batzuk jartzeko baimena ematen ez badio.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Zigorra jartzeko orduan honako arau haustearen izaera edo erantzukizuna duenaren zirkunstantziak hartuko dira kontuan, hau da: erru maila, errepikatzeak, lortutako onura, ingurumenari egindako kaltea edo jendearen osasuna arriskuan jartzea.

Urtebeteko epearen barruan arau bera hausteagatik zigortua izan den pertsonak erreintzidente izaera izango du.

Urraketak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

Urraketa arinak: Alkateak izango du eskuduntza

- Hondakinak edukinontzietatik kanpo uztea.
- Poltsa zaborrak itxi gabe uztea edo poltsa desegokiak erabiltzea.
- Hondakin likidoak uztea.
- Edukinontzietako zaborrak manipulatzeko.
- Hondakinak poltsan sartu gabe uztea.
- Pilak botatzea hartarako ez diren toki edo edukiontzietan.

Zigor txikiena 50 euro.

Zigor handiena 90 euro .

Urraketa larriak: Alkatedak izango du eskuduntza

- Hondakinak etxean erretzea.
- Urraketa arinak, behin baino gehiagotan.
- Hondakin organikoa etxean ez kudeatzea
- Hondakinak birziklaguneetan ez sailkatzea

Zigor txikiena: 90,00€.

Zigor handiena: 150,00€.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Oso urraketa larriak: Osoko Bilkurak izango du eskuduntza

- Hiri hondakin solidoak uztea hartarako ez diren tokietan, kontrolik gabeko zaborategiak sortuz.
 - Edukiontzietan hondakin toxikoak edo arriskutsuak uztea .
 - Edukiontzietan hondakin erradioaktiboak uztea.
 - Edukiontzietan hondakin kliniko ez asimilagarriak uztea.
 - Altzari edo tresnak bide publikoan uztea, material horien bilketarako egun eta ordutegiak errespetatu gabe.
 - Arriskutsuak edo toxikoak izan daitezkeen hondakinen gaineko informaziorik ez ematea.
 - Hondakinak erretzea terreno publiko edo pribatuetan.
 - Hildako animaliak bide publikoan uztea.
- Urraketa larriak, behin baino gehiagotan.

Zigor txikiena: 180,00€.

Zigor handiena: 1.500,00 €

14. artikulua: Sailkatzen den hondakinen kontrola eta babesa.

Orendaingo udalak ezarritako sailkatzegunetan , auzokideek beren hondakinak uzteko aukera izango du, eta errefuxa den kasuan, bakoitzak, ongi zehaztu eta identifikatutako gantxoan zintzilikatzeko aukera du.

Orendaingo udaleko langileari dagokio, sailkatze guneetako hondakinak herriko gune nagusira ekartzea.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Eta bide batez, Orendaingo udaleko langilegoari dagokio, auzoetako birziklaguneetan arau haustea dagoela iruditzen bazaio udaleko alkateari jakinaraztea.

Udaleko langileak, bere susmoa edo irudipena alkateari ahoz jakinaraziko dio. Eta ondoren, honako urratsak emango dira:

1- Udaleko langileak, urraketa egin dela susmoa hartzen duen poltsa identifikatuko du eta bertan utziko du.

2- Langileak alkateari ahoz jakinaraziko dio.

3- Udaleko alkatea, zinegotzi bat, udaleko langilea eta idazkaria bertaratuko dira. Idazkariaren aurrean poltsa irekiko da eta bertan gertatu eta aurkitzen denaren akta jasoko da.

4- Akta hori bertaratu ziren guztiak sinatuko dute, eta urraketa espedientean jasoko da.

5- Hondakin poltsa honen araketa egin ostean, hondakinetaz gain datu pertsonalak aurkitu daitezke. Araketaren ondoren datu pertsonalak aurkitzen badira, hauek Datuen Babesa Legeak betearaztea behartzen du, eta bertan aurkitzen dena, aktan jasotzerakoan ere, legea errespetatu beharko du.

Babesa:

Espainiako Konstituzioak lehen sekzioko 15 artikuluan eta jarraiekoetan, oinarrizko eskubideak babestea arautzen du, besteen artean, pertsonan ohore, intimitate eta irudia babesten ditu.



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

Ondoren, Pertsonen ohore, intimitate eta irudiaren babesa zibilari 1/1982 buruzko legea, maiatzaren 5ekoak garatzen du.

Udalak, bere eginkizunaren prozedura osoan, herritarren ohorea, intimitatea eta irudia babestuko ditu, eta ez legekotzat joko dira:

1- Pertsonen ohore, intimitate eta irudiaren babesa zibilari 1/1982 buruzko legeak, 7. artikuluan 3 eta 7 puntuan arautzen dituenak, hau da:

- Pertsona eta famili batean bizitza pribatuko gertaerak zabaltzen direnean eta honek bere ohoreari kalte egiten dioenean.

- Gertaerak leporatzea edo baliozko iritzia azaltzea eta hauek pertsonaren edo familiaren dignitatea gutxitzea edo kaltetzea.

Orendaingo udalak, halere, honkakin bilketa eta tratamenduaren asmoa jarritako helburuak bete behar ditu, beti ere legeak ezarritako xedeak bete eta errespetatuz:

- Gaur egun zaborte gietan dagoen arazoari aurre egiteko neurriak betearaztea.

- Ingurunearen kutsadura babestea, gizaki guztien onura delako.

- Eta azkenik, kontsumitzaileak sortzen duen hondakinetaz konturatzea eta arduratzea udalak ezarritako era errespetatuaz.

Helburu hauek betetzeko bideak jarriak daude, eta guztiek zuzen betetzen badute, udalak ez du kontrolik egin beharrik izango.

Eta kontrola egiteko beharra suertatzen bada, udalak eta langileak aipatutako legeak bete beharko ditu. Eta horrela ezean, Pertsonen ohore, intimitate eta



ORENDAIN'GO UDALA

Tnoa. - Faxa: 943 65 40 64
20269 GIPUZKOA

irudiaren babes zibila legeko 9. artikulua dioena beteaz, babes judiziala izango du prozeduran zehar ez legezko jarduera, ekintza edo antzekoa egiten denean.

Orendaingo udalak, identifikatzeko datuak eskuratzen dituenen, urraketaren legezko prozedura hasi aurretik, argibideak eskatuko zaizkio, eta hilabeteko epean bere argudioak azaldu beharko ditu.

15.artikulua.

Ordenantza behar bezala beteko dela bermatzeko ardura Udaltzaingoak izango du.

Zigor espedientea ofizioz hasiko da, edota salaketa bidez.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, behin betiko onespina jaso ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik agertu eta handik hamabost egunera indarrean jarriko da.